"Mandarin dotore"

• PAPER HOTSAk • Rafa Egiguren, Jose Luis Zumeta eta Joserra Senperena



Argitalpen berezia dakarkigu Paper Hotsak-ek, Gaztelupeko Hotsak disketxeak sortu berri duen zigiluak. Berezia kanpotik zein barrutik. Banan bana egindako 1.000 aleko tirada mugatua izango duen gutizia. Poesia, musika eta irudiak biltzen dituena.

VII. mendetik X. mendera iraun zuen Txinako Tangdarren erresumak. Erresuma honetako funtzionarioak Mandarinak ziren eta Mandarin izateko hainbat froga gainditu behar zituzten. Froga intelektualak ere bazirenez, olerkigintzak garrantzi handia hartu zuen. Rafa Egigurenek euskaratu ditu garaiko hainbat olerki, Txineratik euskara zuzenean eginiko lehen itzulpenean. Txineraz ere agertzen dira. Olerki horiek iradoki diotenarekin, Joserra Senperenak 30 pieza konposatu ditu. Zumetak, disko-liburua ilustratzeko 15 marrazki eta liburuaren diseinua egin ditu.

Kanpotik ere, berezia da, metalez egindako azala baitu.



"Itsasoa etxe barruan"

• ELKAR (Batela saila) • Harkaitz Cano/Mikel Valverde

Jorge sinetsita zegoen bere etxeko sukaldea itsasoa zela. Sukaldeko horma zuria eta urdina zen: urdina erdiraino eta zuria hortik sabaraino. Sukaldeko paretari urdin kolorea kendu, eta horiz margotu zuten gurasoek. Jorgek itsasoa lehortu eta basamortu bilakatu zela pentsatu zuen. Irudimena ezin baita hain erraz ezabatu. Haurrei zuzendutako liburua idatzi du Harkaitz Canok. Marrazkiak Mikel Valverde ilustratzailearenak dira.

"Brummm!"

• ELKAR (Batela saila) • Anjel Lertxundi/Antton Olariaga

Nikok ez daki aspertzen. Irudimenak ez dio horretarako aukerarik ematen. Pospolo-kaxa gorri bat aise bilaka daiteke auto gorri-gorria, munduari irudimen begiekin begiratzen jakinez gero. Gurasoak eta pertsona helduak, ordea, oso mugatuak dira. Irudimenaren dohaina aspaldi galdu zuten-eta. Haur literaturan murgildu zaigu berriz ere Anjel Lertxundi idazle zarauztarra. Marrazkiak Antton Olariagak egin ditu.

"Anton Kaiku"

• ELKAR (Batela saila) • Koldo Izagirre/Jokin Mitxelena

Anton Kaiku euskaldunen herrira heldu da. Entzuten duen guztia sinetsi eta agintzen dioten huraxe egiten du, baina ostikoka hartzen dute bazterretan. Zergatik haserretzen ote zaizkio horrela euskaldunak? Zein xelebreak euskaldun jende hauek! Koldo Izagirre idazlea haurrei zuzendutako liburu batekin datorkigu oraingoan. Marrazkiak Jokin Mitxelenak egin ditu.

"60ak + 2"

• ELKAR • Mikel Laboa • 21 abesti

Mikel Laboa kantariaren 21 abesti biltzen ditu "60ak + 2" CD bildumak. Bertan, Mikel Laboak 60ko hamarkadan grabatutako kanta guztiak aurki daitezke. Horretaz gain, 70eko hamarkadan egindako bi abesti —"Izarren hautsa" eta "Martxa baten lehen notak"— dakartza diskoak. Ezinbestekoa.